

B

BARREN

TOKIKOM

Notarik onena Batxilergoan

Leire Melgosa

estetikaalire

Upaiz zaharra, 1 behea
Tel.: 943 531 636
Elgoibar

mama
mio
fit skin for life

Haurdunaldirako eta erditze ondorenerako
produktu espezifikoak





**Ignacio
Zuloaga
Institutua**

Eibar



Ate irekien eguna

Apirilak 29

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Ikasleen lanen erakusketa

Portalean

Apirilak 17 - Maiatzak 3



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943208048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



Agurtzane ileapaindegia

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 884



Ekaina-Uztaila-Abuztua
2015
Fotodepilaziorako
eskaintzak


PRESTA ZAITEZ UDARAKO

- ✓ GOIKO EZPAINA: **15€**
- ✓ KOKOTSA: **19€**
- ✓ GALTZARBEAK: **29€**
- ✓ IZTARTEAK, PUBISA ETA IPURTARTEA: **69€**
- ✓ INGLEAK: **29€**
- ✓ BULARRALDEA, GALTZARBEAK ETA SABELALDEA: **99€**
- ✓ HANKA OSOAK: **99€**

Irrati-frekuentzia bidezko eta argi pultsatu bidezko sesioak

* Eskaintza hauek abuztuaren 31ra artekoak dira, eta ezin zalzkie aurrez dauden beste promozioei gehitu.

* Ezin zalzkie lehendik dauden promozioei gehitu





Jose Luis
Azpillaga

Heldu zaigu guri ere Zozoak Beleari atal hau agurtzeko ordua. Kontuak gaizki atera ez baditut, badira hiru urte, gutxienez, zor-zor eta karrak-karrak hasi ginela. Denbora honetan euskara eta euskararen ingurukoak izan ditugu hizpide maiz. Orain-txe ere, ez dago berri eta albiste faltarik horren inguruan jarduteko.



Amaia
Larrañaga

Bai, J.Luis, gu bagoaz tontor honetatik beste hegazti batzuei lekua lagatzeko, badago eta zeinek zer esana eta egina.

Zuk diozun moduan, guk urte hauetan, endemas, euskararen inguruan jardun dugu, baina badira beste batzuek ere, botoak lortu nahian-edo, euskara hizpide hartuta jarduten dutenak, nire ustez eurek ere sinesten ez dituztenak eta bi esaten. Honen adibide argiak, besteak beste, zuk lehenengo atalean aipatu dituzunak. Lehenagokoak esan zuen moduan hamaika ikusteko ez ezik, entzuteko edo irakurtzeko ere jaiotzen ginen, alajainkoa!

Horietako batzuk bilduko ditut hona.

Arabako PPko zenbait politikarik esandakoak izan dira azkenak. Javier de Andres Arabako ahaldu nagusiak "euskararen kontura bizi diren elkarteak Bilduko eta Batasunako jendilajearen esku" daudela esan du. Honakoa ere erantsi du: "Jende askok badaki beren seme-alabek aukerak galtzen dituztela abertzaleak euskararen exijentzian tematu direlako". Duela gutxi Mendiak ere jarri zuen hizpidea honakoak esanez: "Hemen ez da sekula eztabaidea linguistikorik izan", "Eskuzabaltasun handia izan da erdal hiztunen aldetik euskara sustatu eta euskal hiztunen kopurua hazteko". Aspaldi esan zuen gogoan ez dudan norbaitek ETArek biolentzia bukatzean, euskara bihurtuko zela euskal gizartearen ika-mika iturri nagusia. Hori esan zuenak asmatu egin zuela uste dut. Hemendik aurrera, ez dakit noiz arte, euskara izango da, tamalez, euskal gizartearen partidu batzuek botoak lortzeko erabiliko duten aitzakia nagusia.

ere jaiotzen ginen, alajainkoa!

Hala ere, nik, bigarren zatian, amaieran aipatzen duzunari tira egin nahi diot, hain zuzen, Lorea Agirrek Korrika 19ren lekukorako idatzi zuenari. Izan ere, guztiz bat nator adierazitakoarekin: "Ekitea, egitea" dela kontua, "egiten duguna garela"... baina hori abertzale euskaldun askoren artean "izatean" gelditzen da, eta "izateatik egitera" pasatzen ez garen bitartean, jai daukagu, eta hori gure eskuetan dago, ez dugu inoren baimenik behar.

“Badira hiru urte, gutxienez zor-zor eta karrak-karrak hasi ginela”

Euskararen inguruko berriekin jarraituz, Sarasolak esanak ere gogoan hartzekoak dira, nire ustez: "Zuzentasunaren irizpideak ez du balio inongo hizkuntzatan, erabilerak baizik", "Erabilera ponderatuak agindu behar du, ez zuzentasunak". Irizpide aldaketa horrek arnasa pixka bat emango digu euskara irakasten eta ikasten dihardugunoi, ezta? Sarasolaren harikoak dira, nire iritziz, Lorea Agirrek Korrikaren bukaerako mezu gogoangarrian esandakoak ere: "Kontua ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua ekitea da. Egitea. Egiten duguna gara. Izatea egitea da". Eskerrik asko, Amaia. Mila esker irakurleoi eta BARRENEKO lan-taldeari.

“Gu bagoaz tontor honetatik beste hegazti batzuei lekua lagatzeko”

Nork uler dezake, esaterako, Korrikari horrenbesteko babesa ematea, jakinda helburu bi dituela: bata, euskararen aldeko kontzientziak astintzea, eta, bestea, AEKri sostengu ekonomikoa ematea Euskal Herri osoan euskara irakasten jarrai dezagun, eta hurrengo egunean bertan elkarriketak, telefono deiak edo mezuak, erosketak, egunkaria irakurtzea, irrati zein telebista entzute-ikustea ... gatzelaniaz baino ez egitea? Behin Karlos Cid hizkuntzalariak esan zuen bezala, arazoa psikiatrikoa da.

Gaurkoan ere ezkortasunetik idatzi dut, J.Luis, baina badira eguzki izpiak ere, eta horietako bat oraintsu A.Egañak, P.Aristik eta beste askok ETB2ri aurkeztu dioten eskaera, hain justu, "izateatik egitera" pasatzeko. Bejondeiela! J.Luis eta irakurleok: egin dezagun! geuk egiten ez badugu, zeinek egingo du, ba?

ESKERTZA

ANDRES IBARLUCEA BERECIARTUA



2015eko apirilaren 21ean hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA**
Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO**
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro **KOLABORATZAILEA**, Jairo Berbel, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren
Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi,
Inma Mugertza, Ander Izagirre **INPRIMATEGIA**
Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale **LEGE**
GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskutitzailearen Tokiagunea

LAGUNTAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Altzola Amets

Altzola *grandia* zala entzun izan diegu herriko nagusienei sarri. Bainuetxea, jende inportantea, hamaika hotel... Seguru mugimendurik eta bizirik ez zela falta garaian. Beste horrenbeste atzerago joanda, Erdi Aroan ere, lonja eta dorretex bezetako ibai portu hartan.

Gaur zer dugu, ordea, Altzolan? Ba erortzeaz dauden jauregiak, saldu gabeko etxebizitza berriak, errepideek itotakoa auzo bat. Hutsik eta erortzeaz daude Aurretzea dotorea eta aldameneko etxea; hutsik dago harlanduzko Albizkua lonja ederra; berdin Sukurtsala eta Hotel Alzola ere. Gehiago ere badira antzeko egoeran dauden eraikinak. Egungo sistemaren absurdoa gordin agertzen duen eredia dugu auzoa.

Inori egiten al dio mesede guzti honek? Ez al ginateke gai izango eragile desberdinen artean auzoari buelta emateko? Altzolak gazteak behar ditu, auzoari bizia emango dion jendea, ilusioz eta indarrez etorriko dena. Hori badugu soberan inguruetan (geugandik hasita). Gazteok, ordea, etxea ere behar dugu, gure bizi-proiektua garatzen lagunduko digun espazio bat, gizarte-bizitzan inplikatzeko gune propio eta askeak. Eta, esan bezala, etxe huts pila dugu Altzolan. Lehen pauso bat izan liteke aipatutako eraikinak berri, mantendu eta zenbait gastu ordaintzearen truke gazteei bertan bizitzeko aukera ematea. Egongo da agian horretarako prest den etxejaberik ere.

Hala, gazteok etxebizitza baterako aukera izango genuke, jabeek erortzen ari diren eraikinei irtenbide bat emango liekete, auzora bizitza ekarriko genuke, eta bide batez, Altzolako ondarea berreskuratzeko bide bat ere izango litzateke. Altzola txikia haundi bihur dezagun berri den artean, gure ametsen eta beharren neurria!

(Inork interesik edo informazio interesgarrikerik balu, deitu dezala 678 155 803 telefono zenbakira)

44346291-Z ☎

Eskerrik asko

Apirilaren 20an zorrien prebentzioari eta zorrien kontrako tratamenduei buruzko hitzaldia antolatu genuen Mendaroko Arno guraso elkartekook, Irrintzi ileapaindegiko Amagoia

Basurto eta Lucia Dieguez en laguntzarekin. Orrazkera ezberdinak egiten ere irakatsi zigiten, eta lerro hauen bidez, gure eskerrik beroena eman nahiko genieke, hain saio polita antolatzen laguntzeagatik. Eskerrik asko, era berean, saiora batu zineten guraso guztioi ere. Era berean, eskerrik asko, igandean Urkulura egindako mendi irteerara etorri zineten guztioi. Lanean jarraitzeko pizgarri dira guretzat hala-koak. Mila esker.

Arno guraso elkarte ☎

OHARRA

Maiatzaren 1a jai eguna denez, datorren asteko alea apirilaren 30ean kaleratuko dugu, eguenean. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, (gutunak, zorion-agurrak, iragarkiak...) martitzen eguerdirako bidali beharko duzue BARREnera. Gure e-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Erretratu zaharra**1967**

Aste honetako erretratu zaharra 1967. urtekoa da. Oraiko diskotekan aterata dago, eta hain zuzen ere, Oraiko izan zen Elgoibarko lehenengo diskoteka. Gerora zabaldu zuten Pelouse San Roke auzoan, eta Guass dantzalekua ere urteetara zabaldu zuten. Oraiko diskoteka barixakutik domekara zabaltzen zuten, eta jende asko joaten zen bertara. Argazkian agertzen direnak Juan Marin Perez tabernaria eta Jose Gomez atezaina dira.



ESKERTZA

SIMON ZULAIKA ARRIOLA

2015eko apirilaren 19an hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko erretratu zaharrak baldin badituzu, eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea edo barren@elgoibarkoizarra.eus helbidera bidaltzea edo Kalebarren Plaza 2 943 744 112 (Ainhoa)

B
BARREN

Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea
GINEKOLOGOA
mj.ruizporres@gmail.com

Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857

Zu zaintzeko zerbitzu onena eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko dugu.

Menditxo tabernak irabazi du Mendaroko pintxo lehiaketa

Epaimaharen Saria ez ezik, herritarrena ere irabazi du Menditxok

Menditxo tabernako pintxoa nabarmendu dute Mendaroko pintxo lehiaketan. Joan zen zapatu eta domekan egin zuten pintxo lehiaketa, eta guztira, herriko zortzi tabernak parte hartu zuten. Pintxo bana prestatu zuten espreski lehiaketarako eta euro batean saldu zituzten. Guztien artean, Menditxokoa aukeratu zuen epaimahaiak irabazletzat. Bigarren saria Txirrista-ka tabernak jasoko du, eta hirugarren saria, berriz, Lagun Betikoakek. Herritarrek ere izan dute, baina, bozkatzeko aukera, eta aurtin, epaimahaikoak aukeratutako pintxo bera izan da herritarren gustukuena: Menditxo tabernakoa. Guztira 1.857 lagunek eman dute botoa aurtin, iaz baino 79 lagun gehiagok. Menditxokoaren ondoren, honako taberna hauetako pintxoak izan dira bozkatuenak: Arrats eta Ormola. Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 4an egingo dute udaletxeko pleno aretoan.



Irakurketa publikoa, presoek eskubideen alde

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko Sare herri mugimenduak deituta *Dispertsioaren liburuxka* izeneko liburukiaren irakurketa publikoa egin zuten zapatuan, Elgoibarren. Sakabanaketa politika amaitzeko eskatu zuten, eta elkartasuna agertu zieten preso eta iheslariari. Argazkian, Pello Arrieta historialaria berari zegokion pasartea irakurtzen.

Ongizate Saila indartzeko lan egingo duela agindu du Sofia Vazquez PPren alkategaiak



Donostian jaioa da, Irunen bizi da, 39 urte ditu, bost urte daramatza politikagintzan eta azkeneko lau urteetan PPren zinegotzia izan da Eibarren. Halaxe aurkeztu zuten Sofia Vazquez PPren Elgoibarko alkategaia. "Ilusioz" datorrela esan zuen, eta Ongizate Saila indartzeko lan egingo zuela agindu. Herriko azpiegiturak zaintzeko konpromisoa agertu zuen eta EAJk azkeneko hauteskunde kanpainan egin zituen "promesak" egi bihurtzeko ahalegina egingo zuela gaineratu.

Mausitxako gazteak urrea lortu du Madrilgo Gourmets azokan

Salon Gourmets Klubaren 2015eko nazioarteko azoka egin zuten Madrilan apirilaren 13tik 16ra. Europan kalitateko gastronomiaren sektoreak duen erreferentziako ekitaldia da, eta aurtin, 30.000 produktutik gora aurkeztu dituzte. Aretoaren barruan, Gourmetquesos gazta lehiaketa egin zuten, eta Mausitxako gaztak urrezko domina jaso zuen ardi gazta onduen sailean.

Gourmetquesos gazta lehiaketaren seigarren edizioa izan da aurtengoa, eta 380 gaztatik gora aurkeztu dituzte lehiaketara. Epaimahaia, berriz, 30 lagunek osatu dute, eta ardi-gazta onduen sailean, Mausitxako gaztak jaso zuen lehen saria. Gazta erdi onduetan, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuen Mausitxakoak.

Izena **Felisa Bergaretxe ‘Felisin’**



Felisa Bergaretzek 100 urte bete zituen apirilaren 19an, eta familiakoez inguratuta ospatu zuen jaio zeneko mendeurrena. Ezaguna da Elgoibarren Felisa, *Felisin* izenez ezagunagoa. Felisa Ermuan sortu zen, 1915. urtean; besteak beste, Koldo Mitxelena euskal idazle, filologo eta euskaltzaina, Orson Welles aktore eta zuzendaria, Ingrid Bergman aktorea eta Augusto Pinochet Txileko diktadorea jaio ziren urte berean.

Gazte denbora Ermuan pasa ostean, 18 urte zituela Montalboko kondearen neba-arreben etxera joan zen Felisa sukaldari lanetan aritzera. Gerra garaian, familiak Negurira alde egin arren, aitarekin geratu zen bera Ermuan. Aita atxilotu zutenean Bilbon egon zen bera zaintzen, eta garai hartan kartoizko panpinak egiten ateratzen zuen eguneroko ogia. Handik Elgoibarrera etorri zen, eta taberna ireki zuen hemen. Tabernan ez ezik Sigman ere aritu zen lanean, josteko makinak probatzen. Tabernako lanetik koinatuaren dendara pasatu zen gero. 34 urte zituela ezkondu egin zen, eta bi seme-alaba izan zituen.

Gazte alargundu zen, ordea. Apendizitisarekin hil zitzaion senarra berak 38 urte zituenean. 65 urtera arte dendan egin zuen lan. Politika arloan ere egin ditu bere lantxoak eta hauteskunde garaian noiz edo noiz bere alderdiarentzako (EAJ) boto eskean eta propaganda banatzen ere ibili izan da. Erretiroa hartu ostean, pianoa jotzen ikasi zuen, eta musika eskolara joaten hasi zen astero, pianoa ikastera.

Hitzaldia **Xabier Olano eta Jose Luis Ibarzabal**

EHBilduk hitzaldia antolatu du gaurko. Xabier Olano Gipuzkoako ahaldun nagusi-gaia eta Foru Aldundiko Ogasun zuzendaria (2011-2015) eta Jose Luis Ibarzabal EHBilduren Elgoibarko alkategaia ariko dira hizlari. “Gipuzkoako Foru Aldundian lau urte hauetan jarritako aldaketen oinarrien gainean zuzenean galdetzeko aukera izango da”, aurreratu dute antolatzaileek. Ondasun handien gaineko zerga, fiskalitatea... eta antzeko gaiez mintzatuko da Olano, eta Elgoibarko gaiez Jose Luis Ibarzabal. Hitzaldia Herriko Antzokian izango da, 19:00etan.

Barixakutik 24 orduz daude martxan igogailu publikoak eta eskailera mekanikoak

Joan zen barixakuaz geroztik gau eta egun daude martxan Elgoibarko eskailera mekanikoak. Eskailera mekanikoak ez ezik herriko igogailu publikoak ere 24 orduz dabilta joan zen barixakuaz geroztik. Ricardo Garate Hirigintza zinegotziak aurreratu du, baina, inzidentzien jarraipena egingo dutela, ez baita berdina Udalak gauzez edo egunez gertatzen diren inzidentziei erantzuteko daukan ahalmena.

Herri programa aurkezteko elkarteekin bilerak hasi ditu EHBilduk

Maiatzaren 24an egingo diren Udala eta Foru Hauteskundearen aurretik herriko 50 elkarte eta kolektibo ezberdinekin batuko dira EHBilduko ordezkariak euren udal programa aurkezteko. Bilera horietan datorren legegaldari begira dituzten asmoen eta proposamenen berri emango diete, eta bide batez, elkarteekin ekarpenak jasoko dituzte. Bilduk martxoaren 18an aurkeztu zuen Udala kudeatzeko aukeratu duen lantaldea eta aste honetan etxez etxe banatu dute proposamena biltzen duen aldizkaria.

Zabaldu dute zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko izenemate epea

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Saitetik jakinarazi dute zabaldu dutela udan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko Diputazioak antolatzen duen programarako eskabideak aurkezteko epea. Uztaileko aldi baterako egonaldiak egiteko epea maiatzaren 15ean bukatzen da, abuztuko aldi baterako egonaldiak egiteko epea, maiatzaren 29an, eta iraileko aldi baterako egonaldiak egiteko epea, ekainaren 12an.

LEIRE MELGOSA

IKASLEA

“Alzheimer gaixotasuna ikertzea gustatuko litzaidake”

Batxilergoko Sari Berezian Euskadiko notarik onena lortu zuen iaz Leire Melgosa elgoibartarrak. 15.000 ikaslek bukatu zuten iaz Batxilergoa Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian, eta horietatik 700 izan ziren Batxilergoko Sari Berezian parte hartu zutenak. Batxilergoa bukatu ostean borondatez egiten da azterketa hori. Leire Melgosa Elgoibar Arreiturre BHI Institutuko ikasleak azterketan parte hartzea erabaki zuen, eta berak lortu zuen emaitzarik onena. Hamabost ikasle saritu zituzten guztira. Martxo amaieran jaso zuen saria Lakuan, Arantxa Aurrekoetxea Hezkuntza sailburuordearen eskutik, eta sari horri esker, hiru asteko bidaiara egingo dute Kanadara. Une honetan Biokimika eta Biologia molekularra ikasten dihardu Leioako Unibertsitatean.

Batxilergoko notarik onena lortu zenuen iaz. Zertan datza azterketa hori?

Batxilergoko bi urteetako batezbesteko nota 8,75etik gorakoa izan behar da azterketa horretan parte hartu ahal izateko, eta behin nota hori edukita, borondatezkoa da azterketara aurkeztea. Azterketan hiru ikasgai sartzen dira: euskara edo gaztelania, atzerriko hizkuntza bat eta Batxilergoan eman duzun ikasgaietako bat. Nik euskara, ingelesa eta matematika aukeratu nituen. Euskarazko eta ingeleseko azterketetan idazlan bana egin behar izan nuen eurek emandako gai baten inguruan, eta matematikan ariketak egin behar izan nituen.

Selektibitate azterketa egin ostean, nola animatu zinen Batxilergoko azterketa berezi horretan parte hartzera?

Selektibitatea egin eta astebetara izan zen azterketa. Nik ez nuen azterketa hori ezagutzen, amak eman zidan horren berri, eta egia esanda, Selektibitatearen ostean ez neukan berriz ikasten hasteko gogorik, baina Institutuko tutoreak ere esan zidan lagunduko zidala, eta animatu egin nintzen. Ikastetxe osotik ni bakarrik aurkeztu nintzen. Matematika ikasgaia aukeratu nuen, horrek ez duelako eskatzen gehiegi ikastea, eta aurkeztea erabaki nuen. Gero Espainiako proban parte hartzeko aukera ere banuen, baina azterketa horretan derrigor egin behar zen Historiako azterketa, eta ez neukan gogorik.

Aurkeztu, eta gainera notarik onena ateratu zenuen. Zer sentitu zenuen jakin zenuenean?

Selektibitatea eta Batxilergoko azterketa berezi hori egin ondoren ikas-bidaian joan ginen Maltara. Notak publikatzeko eguna iritsi zenean amari deitu nion, esateko egun hartan jarriko zituztela notak eta Internetez begiratzeko. Handik gutxira deitu zidan amak zeharo emozionatuta, lehenengo nintzela esanez. Ni ere oso pozik jarri nintzen, eta nire inguruan nituen lagunak eta irakasleak ere bai. Maltan ospatu genuen, eta oso polita izan zen.

Eta azterketa horiek bukatu ostean, Unibertsitaterako hautua egin zenuen. Biokimika eta biologia molekularra ikasten ari zara.

Bost bat urte ditu karrera honek, nahiko berria da. Bizitzaren kimika moduko de-

la esan daiteke, zeluletan gertatzen diren erreazio kimikoak aztertzen dituen. 60 bat lagun gaude klasean, biokimikakoak eta bioteknologiakoak batera. Beste ikasketak batzuekin alderatuta, gutxi gara. Aurten ikasgai guztiak euskaraz ditut, baina gero ikasgai batzuk ingelesez egiteko aukera dago, eta beharbada saiatuko naiz. Zientziaren munduak ingelesez funtzionatzen du, eta lanerako ondo etorriko zait.

“Ikasketak amaitzerako krisi egoera hau apur bat hobetuko den itxaropena daukat”

Ikasketak amaitu ostean, zertan lan egin nahiko zenuke?

Ikerkuntzan lan egitea gustatuko litzaidake, eta bereziki, Alzheimerra ikertzea nahiko nuke. Nire amamak gaitz hori izan zuen, eta gaixotasun krudela dela iruditzen zait. Ni jaiotzerako amama gaizki zegoen, eta ez nuen sekula ondo ikusi. Alzheimerraren alorrean gauza asko dago ikertzeko eta oso interesgarria izango delakoan nago. Eta ikerkuntzan ezin bada, irakasle izateko aukera ere izango nuke, baina ez zait gehiegi gustatzen irakaskuntza, beraz, hori azken aukera izango litzateke. Lan munduari ez diot buelta gehiegirik ematen, unea iristen denean ikusiko dut zer aukera dagoen eta orduan erabakiko dut. Ikasketak amaitzerako krisi egoera hau apur bat hobetuko den itxaropena daukat.

Krisiaren eraginez ikerkuntzarako dirua ere murriztu egin dute. Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Nahiko argi daukat denboraldi baterako atzerrira joan beharko dudala. Ez dakit nora, baina ikasketak amaitu eta hemen lanean hastea zaila izango da. Urte batzuk kanpoan egin beharko ditut, esperientzia hartu eta gero hona itzuli. Hemen geratzeko aukera izango banu, askoz hobeto. Euskal

Herrian neurozientzien alorrean egiten da lan eta gustatuko litzaidake sektore horretan sartzea, baina zaila izango da. Askotan pentsatu izan dut hainbeste ikasi, nota onak ateratu eta, hala ere, etorkizun zaila izango dudala, baina hori ez banu egingo, zailagoa izango nuke, beraz, orain nire zeregina ikastea da. Gustuko ikasketak aukeratzeko klabea da. Unibertsitatean gehiago ikasi behar da, baina nire gustukoa denez, ez zait hain gogorra egiten. Ni zientzia alorrekoa naiz, eta logikari lotutako ikasgaiak gustatzen zaizkit. Betidanik gustatu izan zait laborategian lan egitea, baina egia da ikasketak aukeratzeko unea iritsi zenean zalantzak izan nituela. Ingeniaritza Informatikoa egitekotan egon nintzen, baina amak esan zidan laborategia gustatzen bazitzaidan, nire gustukoa zena aukeratzeko. Umetatik kuriositate handia izan dut. Amak beti esaten dit galdera pila bat egiten nizkiola. ‘Zergatik egiten du euria?’ eta estilo horretakoak galdetzen nizkion. Arrazoiak ezagutzeko gustatu izan zait beti, eta ikasketak hauek horretarako aukera emango didatela uste dut. Gustura nago Unibertsitatean, eta lehenengo ebaluaketa ondo doa. Irakasleak ere gertu sentitzen ditut, eta momentuz esperientzia ona izaten ari da.

Zein da horren nota onak ateratzeko sekretua?

Klasean adi egon eta irakasleak esaten duena ulertzea da garrantzitsua. Etxeko lanak egin eta ikasten orduak sartzea baino garrantzitsuagoa da materia ulertzea. Momentuan ulertzen ez bada, galdetu egin behar da. Ez da lotsarik eduki behar irakasleari galdetzeko, behin ulertuta, askoz errazago ikasten delako. Ez pentsa dena egunean eramaten dudarik, askotan geratzen zaizkit gauzak azken egunerako, baina azken egunetan ikasita ere emaitza onak lortzeko erraztasuna daukat. Presiopean ondo erantzuten dut.

Eta orain Kanadarako bidaia prestatzen hasi beharko duzu, ezta?

Uztailean joango gara, hiru bat asterako. Kasualitatez iaz ere izan nintzen Kandan, baina berdin zait. Eskerrak eman nahi dizkiet Institutuan eta Ikastolan izan ditudan irakasleei, haiei esker asko ikasi dudalako.

JOKIN MUÑOZ TRIATLETA

Domekan bigarren egin zuen duatloi motzeko Espainiako txapelketan Jokin Muñozek (Mendaro, 1988), 25 eta 29 urtekoen artean, eta horri esker, domekan Europako txapelketa jokatu du, Alcobendasen. 18-29 urte artekoetan lehiatuko da, eta ilusioz da egun handirako. Aitortu du Espainiako txapelketakoa ustekabe-ko lorpena izan zela, baina nahi luke errepikatzea.

Duatloi motzeko Espainiako txapelketan bigarren egin berri duzu Sorian, 25 eta 29 urte artekoetan. Espero zenuen?

Ez, ez. Hemengo zirkuitu tipikoetatik aldendu eta gauza berriak probatzera joan nintzen Soriarara, eta bide batez, leku berriak ezagutzera, sekula ez nintzelako han egona. Familia plana izan zen. Zapatuan profesionalen duatloia ikusi eta domekan nik nirea egitea zen asmoa, besterik gabe. Hasieratik, baina, oso gustura aritu nintzen. Batzuetan gertatzen da proba egunera ez zarela behar bezain sasoi onean iristen, zure helburua berez beste lasterketa bat delako edo aurreko egunetan oso gogor entrenatzen ibili zarelako eta hanke ez dutelako behar beste deskantsatu, baina domekakora indartsu iritsi nintzen.

Proba bera nola joan zen?

Erreferentziarik gabe joan nintzen. Hemen inguruko probetan ezagutzen dituzu zeure antzera ibiltzen direnak eta badakizu haiei jarraituta ondo ibiliko zarela, baina Soriarako ez neukan informazio hori. Lasterketa hasi eta bat, ziztu bizian irten ziren bi duatleta, baina arriskutsuegia iruditu zitzaizdan haiei segitzea, eta atzeko taldean sartu nintzen. Halako batean, bigarrena harrapatu genuen, baina lehenengoak bi minutuko aldea atera zigun lehenengo hamar kilometrotan. Bizikletako ibilbidea gora-behera askokoa zen, haizea ere kontra geneukan eta hobe zen taldearen ba-



“Asteburu pasa noa Europako txapelketara, baina ahal den ondoen egitera”

besean joatea. Bosgarren kilometrorako konturatu nintzen, baina, han jendeak ez zeukala erreleboak emateko gogo handirik, eta gainera, atzetik jendea batzen ari zitzaigula taldera, eta hala, ihesera jotzea erabaki nuen. Taldea apurtzen saiatu nintzen, eta hiruk ihes egin genuen. Hiru buelta eman behar zitzaizkion zirkuituari eta azkeneko bueltarako bi bakarrik gelditu ginen. Besteak esan zidan berak ezin zuela gehiago eta ezin zidala erreleborik eman, baina agindu zidan korrika ez zuela gero erasora joko. Ez nuen ezagutzen, baina, aurrera jotzen saiatu nintzen, hark esandakoei kasurik egin gabe. Hala ere, batera iritsi ginen bizikletak uztera. Korrika laga nuen atzera. Azkeneko bost kilometrotan minutu pasatxoko aldea atera nion

saltaka. Asteburu pasa joan ginen, eta podiuma eginda bueltatu ginen, oso pozik.

Sorian egindakoari esker Europako txapelketarako sailkatu zara.

Hantxe bertan jakin nuen sailkatu nintzela [Alcobendasen jokatu du txapelketa, domekan]. Etxera iritsi eta informazio bila hasi nintzenez, baina, jakin nuen Alcobendasera Espainiako arropa ofizialarekin joan behar nintzela eta arropa hori martxoaren 31rako eskatuta izan behar nuela. Epez kanpo nengibilen, eta ezingo nuela lehiatu pentsatu nuen.

Arropa txapelketarako sailkatuko zarela jakin aurretik eskatu behar hori benetan bitxia da.

Arraroa da, bai. Espainiako txapelketan sailkatzen zara Europarako eta gero ezin duzu parte hartu arropa hori ez daukazulako!

“Irailean Madrilen jokatuko den Ironmana egiteko berotuta nabil”

Sorian irabazi zuenak eskatuta zeukan ordu-rako, baina nik zer pentsatuko nuen ba sailkatuko nintzela!. Irabaziko zuela sinetsita egongo zen hura, edo irabazi ez arren, Espainiaren koloreko arropa hori erabiliko zuela pentsatuko zuen, baina nik ez bata ez bestea. Azkenean, baina, lehiatu ahal izango naiz. Itxuraz, euren hutsegite bat izan da.

Aukeratuak lehiatuko zarete Alcobendasen. Aurrez, nola ikusten duzu zeure burua?

Espainiako txapelketa bezala da. Batetik, dago elite maila –Federazioak aukeraturakoak lehiatzen dira–, eta bestetik, adinkako duatloiak jokatuko dira. Europako txapelketarako sailkatzeko bi modu daude berez. Iritsi zaitzke zuzenean, Espainiako txapelketan txartela eskuratuta, edo zeharka, Europako txapelketarako puntuagarri diren probetan lortutako emaitza onengatik. Alcobendaseko honetan, 18 urtetik 29ra urtera bitartekoan taldean lehiatuko naiz. Maila handia egongo da ziurrenik, baina egia esan ez dut begiratu ere egin zeintzuk goazen. Asteburu pasa noa ni, baina ahal den ondoen egitera. Espainiako txapelketarekin alderatuta, araudia ezberdina da hemen. Bizikletan, adibidez, bakarrik joan behar zara beti, zure aurrekoarengandik hamar-hamabost metrora. Distantzia erdiko eta luzeetako triatloietako araudia da. Dena den, horrek ez nau gehiegi kezkatzen, bizikletan nahiko ondo moldatzen naizelako.

Ez da denbora asko duatloietan hasi zinela. Futbol mundutik zator zu. Nola eta noiz erabaki zenuen kirol honetan saiatzea?

Orain bost bat urte laga nuen futbola, aste-buruetan lanean hasi nintzenez, eta garai hartan hasi nintzen bizikletan. Hortik gutxira anaia hasi zitzaidan duatloia probatzeko xaxatzen. Korrika hasi nintzen, eta konturatzerako, gustua hartu nion. Hasi nintzen poliki-poliki, eta 2013an estreinako duatloia egin nuen, Durangon.

Bi diziplina nahikoa ez, eta triatloirako saltoa egin zenuen gero.

2012an hasi nintzen triatloian ere. Hasiera gogorra izan zen; ez dizut ukatuko. Hasieratik neukan garbi distantzia luzekoan saiatu nahi nuela, distantzia motzekoetan denak emanda joan behar delako uneoro eta hori oso gogorra egiten zaidalako. Hala, distantzia motzeko bi egin ostean, distantzia erdiko proba baterako eman nuen izena [1900 metro igerian, 90km. bizikletan eta 21km. korrika]. Debakoa izan zen nire estraineko triatloia

eta itsaso mugituak lanak eman bazizkidan ere, sentsazio onekin bukatu nuen, gehiagotan saiatzeko ilusioz. Aurten, serioago hartu ditut duatloiak, triatloietarako prestatzeko. Iaz, bakarra egin nuen, Eibarkoa, lan kon-tuengatik kanpoan ibili nintzelako. Triatloiak Bilbokoa eta Zarauzkoa egin nituen, eta urrian, Bartzelonako Ironmana egin nuen.

Ironmana hitz handia da gero. Zerk bultzatu zintuen jausi hori ematera?

Distantzia erdiko triatloi bi itxuran bukatu nituela ikusi nuenean hartu nuen erabakia. Hasieratik garbi neukan Zarauzko triatloia egin nahi nuela, gure bueltako ezagunena delako eta gogorragoa ere badelako. Zarauzko triatloia bi aldiz olinpikoa da [2.900 metro igerian, 80 kilometro bizikletan eta hogeitakorrika], eta lortu nuen amaitzea. Niretzat hiru kilometro igerian egitea lorpen handia zen, igerian ibiltzen naizelako okerren, eta igerian 900 metro gehiago egiteko gai nintzela ikusia, pentsatu nuen gai izango nintzela hobeto moldatzen naizen diziplinetan gehiago egiteko. Oporraldia baliatu nuen Ironmanerako entrenatzeko [3.800 metro igeri, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika]. Ironman proba egitera zoazenean badakizu oso ondo entrenatuta ere gerta dakizukela egun txarra izatea eta ez bukatzea, baina horretarako prestatuta joan nintzen. Hori bai, hara iritsi eta ikusi nuenean builak non zeuden, ia jausi nintzen atzeraka [3,8 kilometro distantzia, buelta bakarrean egiteko]. Entrenametuak erreferentziatzen hartuta banekien, ondo bidean behintzat, bizikletako eta korrikako probak egiteko gai izango nintzela, baina uretan builak ikusi nituenean... Baina bukatu nuen, eta lehenengoa izateko, denbora ona egin nuen: 10 ordu pasatxo. Egia esan oso sentsazio onekin bukatu nuen, eta jakina, horrek indarra ematen du beste baterako. ‘Bat eta nahikoa!’ esanez bueltatuko nintzela pentsatzen nuen, baina ez.

Zeure kabuz entrenatzen zara?

Ez. Ironmana prestatzeko kirol prestatzaile batekin hasi nintzen, Mikel Gonzalezekin, eta harekin dihardut. Halako distantzietan saiatu nahi duenak hobeto du laguntzaile bat hartu bestela zoratu egin daiteke, buruari bueltaka. Etxetik gertu egiten dut lana nik, eta hori abantaila handia da entrenatzeko. Egunero egiten dut kirola, baina egunean diziplina bakarrean entrenatzen naiz. Gero, asteburuetan, saiatzen naiz entrenamendua luzatzen eta pare bat diziplina uztartzen.

Erronka zalea zara. Zer duzu orain buruan?

Madrilen irailaren 27an jokatuko den Ironmana egiteko berotuta nabil.

Eta irailera bitartean, zer?

Alcobendasekoaren ondotik, Bilboko eta Zarauzko triatloiak jokatu nahiko nituzke, gure bueltako bi ezagunenak. Bilbokoa distantzia erdiko da, eta Zarauzkoa bi aldiz olinpikoa. Uztailean, berriz, Ribadesellara joango naiz, beste distantzia erdiko triatloi bat egitera. Momentuz horiek dauzkate buruan.

Oso denbora gutxian iritsi zara iritsi zaren lekura. Non ikusten duzu zure burua?

Ez dakit. Oso bat-batekoa izan da dena. Oso gustura nabil eta, jakina, horrek gehiago saiatzeko indarra ematen du. Debagoienako Antxintxika Servimasa taldera batu naiz aurten eta taldearen babesak ere laguntzen du hobetzen.

Hitz egin diguzu zure entrenamendu saioez, baina burua nola prestatzen da halako distantzia luzeetarako?

Ez da erraza. Buruak dena egiten du, baina hankak gogortzea baino dezentez zailagoa da burua gogortzea. Halako distantzia luzeko probetan ahulune asko izaten dira, eta entrenatzera irtetea bera ere ez da beti erraza. Egun askotan ez da gogorik ere izaten, baina halakoetan kontra egin behar izaten zaio gorputzari, gorputza berez delako alferra. Nire kasuan helburu bat jartzeak laguntzen dit. Erronka zalea naiz. Etxekoei mundu hau gustatzenak ere errazten du, jakina.

Hemen bueltan ba al da modu berezian jarraitzen duzun norbait?

Beriat Arnaiz taldekidea eta Richard Calle 2013ko distantzia luzeko triatloi txapeldu-na dira nire erreferente nagusiak. Galleri ebakuntza bat egin zioten orain gutxi, eta hemendik errekupeazio azkarra eta ona opa dizkiot.

Erabakitzeko eskubidearen aldeko jaiak hartuko du bihar kalea

Egun osoko egitarauak antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron, herritarren laguntzarekin



Gure Esku Dago mugimenduak Joste Eguna izendatu du biharkoa, eta Elgoibarren eta Mendaron ere ospatuko dute. Ekainaren 21ean Hego Euskal Herriko hiriburuetan hautetsontzi erraldoiak egiteko herriz herri apaindu dituzten oihalak josteko eguna izango da biharkoa han eta hemen, eta mugimendu honek berezko duen izaerak agindu bezala, jai-giroan ospatuko dute. Herriko elkarte, eragile, eta norbanakoen laguntzarekin osatu dituzte biharko egitarauak Elgoibarko eta Mendaroko Gure Esku Dago batzordeetakoek eta parte hartzera deitu dituzte herritar guztiak. Era berean, jai giroan eta egitaraua osatzen lagundu dezaketela uste dutenei mugimendura batzeko gonbidapena egin diete.

Prest dituzte bi herrietan bihar josiko dituzten oihalak, baina bihar bertan ere egongo da, jakina, mugimendura batu, oihaletan atxikimeduak gehitu eta Gure Esku Dagoren materiala erosteko aukera. Mendaron, joan zen zapatuan elkartu ziren hainbat koadrila oihalak elkarrekin apaintzeko, eta ordukoa duzue beheko argazkietako bat. Elgoibarren ere aspaldi hasi ziren biharkorako prestaketa lanetan. Desio, amets eta aldarrikapenez jositako oihalak jasotzen ari dira eta astelehen gauean egin zituzten biharko iragarri duten oka joko eta hiruko lerro joko erraldoirako entseguak.



Goian, bihar Elgoibarren egingo duten oka jokoaren entsegua, eta behean, joan zen zapatuan Mendaroko koadrila bat, biharko apaindu duten oihalarekin.

Elgoibar

Goiz partean, Kalegoen plazan (Euria egiten badu, Maalan) eta arratsaldean, Maalako parkean.

9:00-9:30 Dultzaineroen diana.

10:45 Joseba eta Josu txalapartariak eta Ziarda bertsolaria.

11:00-12:00: Trikitilariak, txistulariak eta dantzariak.

12:00 Txaranga.

12:30 A2an taldea.

12:45 Jon Gurrutxaga.

13:00 Oier Gurrutxaga.

13:30 Gazte Asanbladaren eskutik, sofa tertulia.

13:45 Hasier Etxeberriaren idatzia irakurriko dute.

14:00 Abesti herrikoiak.

14:15 GED abestiaren koreografiaren entsegua.

*GED oka joko erraldoia, paratxuta, Hiru lerrokoa, aurpegia margotzeko tailerrak eta txikienek margotzeko murala ere izango dira goizean zehar.

18:45-19:15 Arantza eta Ekaitz trikitilariak.

19:00 Korrika, Kalegoen plazatik Maalara.

19:15 Mari Juli eta Agurtzaneren saioa.

19:30 GED abestiaren koreografia partehartzailea.

* Egun osoan zehar, pintxo potea: Iriondo, Txarriduna, Maala, VientoSur, Gabi, Malape, Mahats Vinoteca, Urkiola, Usua, Ibai-Ondo erretgia, Lanbroa, King Kong, Ilunpe, San Roke, Aterpe, Tantaka, Ametsa, Iturri, Orbea, Maren. Herritarrek pintxo gustukuena hautatzeko aukera izango dute eta partehartzaileen artean hiru opari zozketatuko dira: Ardo sorta bat, afaria Gabi jatetxean eta afaria Txarridunan.

Mendaro

12:00 Bizi Poza txaranga, frontoian.

12:30-14:30 Kantu kalejira, Trikititarren eta herriko abesbatzakoekin.

14:30 Herri bazkaria. Luzaide tabernak zerbitzatuko du. Menua: paella, gisatua, eta ijito-beso bizkotxo.

17:00 Dantza modernoa.

18:00-21:00 Dantzadi taldearekin erromeria.

*Inprobisazio saioak ere izango dira.

Ezkontza gehigarria



Hasi al zara zure ezkontza prestatzen? Norberaren ezkontza eguna berezia izaten da, eta gauza asko lotu behar dira egun horretan dena ondo irten dadin. Horietako gauza batzuk aurrez lotzea komeni da, azken unean ezustekorik egon ez dadin. Emozio eta urduritasun sentimenduekin batera, poztasuna izaten da nagusi egun horretan. Gehigarri honetan aurkituko duzu zure ezkontza egunerako beharko duzun guztia.

Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturalak
Errosario kalea, 19 - 943 74 29 50 - cgestetika@gmail.com

"Zure ezkontza egunean inoiz baino ederrago"

Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO

Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienearen gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

- Elorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Kontsultatu hemen ordutegiak: www.peluqueriajoseantonio.com

Zergatik eraztunak?

Ezkontza egunean ezkontideek elkarri eraztuna jartzeko ohitura erromatarren garaitik dator, baina judutarrek ere ezagutu zuten. Garai hartan, ezkongaien bihotzen elkartzea irudikatzen zuten eraztuna, eta gaur oraindik mantentzen da usadio hori, esanahi berarekin. Aintzinako eraztunak burdinezkoak izaten ziren, baina gaur egun, platinoa eta urrea dira material estimatuenak. Diseinuan ere aldaketak izan dira.



XX.mendearen urre horizko eraztun leuna zen gehien erabiltzen zena. Orain, aldiz, eraztun aukera asko daude, kolore eta modelaje askotarikoak. Hori bai, emakumearentzat aukeratzen den eraztunean gardeinatzen den harria diamantea izan ohi da gehinetan, betikotasunaren ikurra delako.

Aranburu bitxidenda

 **AZALEA** Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310

HIDRODEPURAZIOA
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta arguzuzkoa) - Mikropigmentazioa

ELENA
ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

 **ARAMBURU**
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 742 535
Elgoibar



Kala 
LORADENDA

San Frantzisko, 24
Tel. 943 744 516





Belaustegi Baserria JATETXEA

San Migel Gaina z/g - Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com
restaurante@belaustegi.com
<https://www.facebook.com/belaustegibaserria>



DARIC bus



ESSER N-N1 Industrialdea
20850 MENDARO (Gipuzkoa)
Pedro Muguruza Etorbidea, 8-6.
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 677
943 203 442
607 410 410
www.dariobus.com
clientes@dariobus.com

Muruamendiaraz

1935etik gozogintzan
www.muruamendiaraz.com




Jasone
Zerbite Onak

San Ignazio 1 - ELGOIBAR
Tel.: 943 53 11 45
jasone@jasonesg.com
www.jasonesg.com

Sartu, aukeratu eta eraman itzazu!!

15424
PATXI & ANAIA
2015ko Apatzeak 34
1289



**autocares
Revert**



Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura
 Avd. P. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa
 Tel.: 943 741 853 - Fax: 943 531 388
 autocaresrevert@gmail.com
 www.autocaresrevert.com

**Imprenta
Arrillaga**

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkontza gehigarriak
 Hileta ornametak
 Bista txartelak
 Kartelak - etiketak
 e.a.

Fotokopiak

Kolektan
 Teuri-beltzean

Trenbide Kalea, 13 - behea (Frente parking Estacion Tren)
Tel.: 943 74 01 87
 e-posta: arrillagasl@outlook.com



Idama

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Estetika-medikuntza tratamenduak
Mikropigmentazioa

Antonio Arrillaga, 5-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) - Tel.: 943 744 025

LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
 MANU LEIZABE LOYOLA



TB · BIDEOA · HI-FI · DVD

Salmenta eta zerbitzu teknikoak
 Errosario, 8 - Tel. 943 74 00 54

www.kantabriajatetxea.com
kantabria@kantabriajatetxea.com

Arrate Gaina, 4
 279 Postakutxa
 20600 EIBAR
 Tel. 943 121 262

KANTABRIA
Jatetxea

EZKONTZAK
 BATAIOAK
 JAUNARTZEAK



RESTAURANTE KANTABRIA
 KANTABRIA.JATETXEA

Jose Gurrutxaga krosa antolatu du Ikastolak domekarako

10:30ean hasiko dira lasterketak, Kalegoen plazan

Elgoibar Ikastolak Jose Gurrutxaga krosa antolatu du domekarako. Elgoibarko eta Mendaroko ikasleek hartuko dute parte, eta dagoeneko 680 umek eman dute izena. 6tik 16 urtera arteko ikasleek hartu dezakete parte, eta nagusien lasterketan parte hartzen dutenen artean Real Sociedad eta Levanteren arteko norgehiagoka ikusteko bi sarrera zozketatuko dituzte. Lasterketak 10:30ean hasiko dira, eta 13:30 aldera egingo dute sari banaketa.

Udako kirol campusean izena emateko epea zabalik

Kirol Patronatuak kirol campusa antolatu du udarako, eta interesatuek ekainaren 5erako eman beharko dute izena, Olaizaga kiroldegian. Bi maila egongo dira aukeran: haurren kirol campusa, 2008 eta 2004. urte bitartean jaiotakoentzat, eta goi mailakoa, 2003 eta 2000. urte bitartean jaiotako gazteentzat. Goi Mailako campusean teknikoki eta fisikoki exijentzia handiagoa izango dute gazteek. Titulodun zazpi monitore arduratuko dira ekintzak zuzentzeaz, eta herriko hainbat klubetako kideek ere lagunduko dute. Ekainaren 22tik uztailaren 17ra izango dira saioak. Patronatuko bazkideek 94 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 105 euro.

Mugertza krosak IAAF kategoriari eutsiko dio 2015-2016 kros denboraldian

Nazioarteko Atletismo Federazioak (IAAF) kros lasterketen egutegian sartu du aurten estreinakoz Elgoibarko Juan Mugertza Nazioarteko Krosa, eta 2015-2016 denboraldian ere eutsi egingo dio kategoriari. Horri esker, Elgoibarko munduko 11 krosik onenen artean dago. Hortaz, atletismo zaleek munduko atletarik onenak bertatik bertara ikusteko aukera izango dute, beste behin ere, Mintxetan, 2016ko urtarrilaren 24an.

Elene Molinak lehen postua eskuratu du Azpeitiko igeriketa proban, Tximeleta kategorian

Elgoibarko igeriketa taldeko neska-mutilek Kirol Zehaztasuneko ligako bosgarren jardunaldian hartu zuten parte joan zen asteburuan, Azpeitian. Postu eta marka onak egin zituzten, oro har, eta arduradunek Elene Molinaren emaitza nabarmendu dute. 1:31:12 denborarekin, 100 metroko tximeleta proba irabazi zuen.



EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 2 – Haundi 1 (Pref.)
Elgoibar 0 – Roteta 1 (Erreg.)
Elgoibar 0 – Aurrera 2 (Jub.)
Eibar 1 – Elgoibar 0 (Kad. A)
Aretxabaleta 0 – Elgoibar 2 (Kad. B)
Martutene 2 – Elgoibar 4 (Lehen inf.)
Añorga 1 – Elgoibar 1 (Inf. txiki)
Elgoibar 3 – Arrasate 3 (Aleb.)
Urki 1 – Elgoibar 8 (Aleb.)

PILOTA

Beloki 11 – Lagunak 22 (1. Jub.)
Bergara 9 – Lagunak 22 (1. Jub.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 3 – San Juan 2 (2B)

ESKUBALOIA

Urdaneta 22 – Alkorta Elg. 24 (Sen. mut.)
Donibane 24 – Gabaz Elg. 23 (Sen. mut.)
Astigarraga Elg. 21 – Aloñamendi 21 (Jub. nesk.)
Ormaiztegi 24 – Beristain Elg. 20 (Jub. mut.)
Tecnifuelle Elg. 28 – Untzilla 4 (Kad. neska.)
Deca Elg. 26 – Bergara 27 (Kad. mut.)
Pulpo 22 – Bankoa Elg. 35 (Kad. mut.)
San Roke Elg. 21 – Aiala C 20 (Inf. neska.)
Ordizia 9 – Cometel Elg. 17 (Inf. neska.)
Ikus Elg. 31 – Tolosa 10 (Inf. neska.)
Txarriduna Elg. 27 – Zarautz A 22 (Inf. mut.)
Murgil Elg. 21 – Bergara 24 (Inf. mut.)
Sukia Elg. 15 – Pulpo 15 (Aleb. mut.)
Ereintza 15 – Cometel Elg. 16 (Inf. neska.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 25

11:30 Elgoibar – Santo Tomas Lizeoa (Lehen inf.)

13:15 Elgoibar – Lazkao (Kad.)

17:00 Haundi – Aloña Mendi (Pref.)

PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 24

21:00 Lagunak – Tartaloetxe (1. Jub.)

21:30 Lagunak – Legazpi (1. Jub.)

Zapatua, 25

12:00 Lagunak – Aurrera Saiatz (1. nag.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

10:00 Cometel Elg. – Aloña B (Inf. neska.)

11:15 Astigarraga Elg. – Egibide (Jub. neska.)

17:45 Bankoa Elg. – Urrietako (Kad. mut.)

19:30 Alkorta Elg. – Askarza (Sen. mut.)

Domeka, 26

12:45 Beristain Elg. – Aloña (Jub. mut.)

Patinaje ikastaroa

Kirol Patronatuak familian egiteko patinaje ikastaroa antolatu du. Maiatzeko ostiralean izango da, 18:00etatik 19:30era, ikastolako frontoian. Interesatuek maiatzaren 6a baino lehen eman beharko dute izena Olaizaga kiroldegian edo Mintxetan. Familiako prezioa 47 eurokoa da (bazkideek, 37 euro) eta banakakoa 37 eurokoa (bazkideek, 30 euro).

2015erako zereginak onartu ditu Elgoibarko Izarraren Batzar Orokorrak

Zerbitzugintza martxan jartzeko asmoa dute



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteak eguaztenean egin zuen urteko batzar nagusia. 2014ko memoria aurkeztu zuten lehenik, eta erretratu errepasso baten ostean aurtengorako zereginak aurkeztu zituzten. Urteroko egitasmoei eusteaz gain, zerbitzugintza martxan jartzeko asmoa dutela aurreratu zuten, elkartearen bideragarritasun ekonomikoan eragiteko. Elgoibarko Izarraren eronketako bat elkarteak ekonomikoki bideragarria izatea da, eta horretarako ahalegin berezia egingo dute aurtengorako. Bazkideek ontzat eman zituzten bai iazko memoria eta baita elkarteak aurtengorako aurkeztu duen egitasmoa ere.

Euskal Eskola Publikoaren jairako kanta eta bideoklipa aurkeztu dituzte gaur goizean



Herri Eskolako arduradunek Euskal Eskola Publikoaren jairako kanta eta bideoklipa aurkeztu dituzte gaur goizean Donostiako Kutxaespazio zientzia museoa. *Jaku-jata* lelopean osatu dute kanta. Iban Urizar musikari elgoibartarrak konposatu du abestia, eta hitzak Mikel Odriozola elgoibartarrak egin ditu. Uxue Alberdi, *Porrotx*, Zuhaitz Gurrutxaga eta Aiora Zea Mays taldeko abeslariak jarri diote ahotsa, eta musikariak Oreka TX, Patxi Zabaleta, Naia Membrillera, Iban Guinea, Aitor Nova, Andoni Riaño, Joanes Ederra, Balzola anaiak, Mendaroko Ameikutz abesbatza eta Herri Eskolako haurrak izan dira. Abestia Azpeitiko Elekrika grabaketak estudioan grabatua izan da Ander Barriusoren gidaritzapean, eta bideoklipa Lander Garrok zuzendu du, besteak beste, Tumaxak eta Herri txiki infernu handi programen zuzendaria denak, hain zuzen ere.



Dantzari gazteak fin, Elgoibarko auresku eta soinu zahar txapelketan

Elgoibarko auresku eta soinu zahar txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Herriko Antzokian, eta arduradunek esandakoaren arabera, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleak fin aritu ziren. Eneko Gonzalezek bigarren egin zuen 11 eta 15 urte artekoetan, eta Gaizka Uranga bosgarren sailkatu zen. Nesketan emaitza hauek lortu zituzten: Amaia Astigarraga (12), Oihane Agirrebeña (16), Irati Marcos (21) eta Lorena Etxaniz (22).

7 eta 11 urte artekoetan Amaia Sasiainek bosgarren egin zuen, Maddi Zabala hamabigarrena izan zen eta Oier Galindo zortzigarrena.

Kiribilka egitasmoa maiatzaren 8an hasiko da

Atxutxiamaiak Elgoibarko Izarraren aisialdi taldeak gaurko iragarri zuen Kiribilka egitasmoaren hasiera, baina arduradunek jakinarazi dute maiatzaren 8an hasiko dutela aurtengo ikasturtea.

Kale Kantarien entsegua gaur, musika eskolan

Elgoibarko Kale Kantariak gaur arratsaldean egingo dute apirilko azken feriarako entsegua. Musika Eskolako auditorioan izango da, 18:00etan. Gaur Gure Esku Dago ekimenaren kanta ere prestatuko dute, biharko Joste Egunean abesteko. 12:00etan hasiko dira kantuan Kalebarren plazan.

Elgoibarren estreinatuko dute 'Itsasoari begira' dokumentala

Maiatzaren 8an emango dute, 20:30ean Herriko Antzokian



Maiatzaren 8an estreinatuko dute *Itsasoari begira* dokumentala Elgoibarko Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. *Emadazu eskua* izenez ekin zioten proiektuari, baina azkenean *Itsasoari begira* izenarekin kaleratuko dute. Ezintasun neurologikoa duen neskatila baten istorioa jasotzen du dokumentalak, eta oro har, pertsona horiek bizi duten errealitatea kontatzea da egitasmoaren helburua. Maier Gurrutxaga elgoibartarraren alaba Itxaso izango da dokumentaleko protagonista. 13 urte ditu Itxasok, eta lau hilabete zituela gaixotasun neurologikoa atzeman zioten medikuek. Lorea Perez de Albeniz elgoibartarra da ekoiztetzeko kideetako bat. Proiektu honetan sinetsita daude, eta uste dute enpatia bidez edonor egin daitekeela solidario.

Alemaniko ikasleen bisita izan dute Elgoibar BHI Institutuan



Apirilak 15etik 22ra Alemaniako Karlsruheko 19 ikasle izan dira bisitan Elgoibar BHI Institutuan. Urteak dira hiri hartako institutuarekin elkartrukea egiten dutela, eta urtero saiatzen dira Elgoibar eta inguruko txokoak Alemaniako ikasleei erakusten. Aurten Zarautz, Donostia, Bilbo eta Gernika bisitatu dituzte, besteak beste. Maiatzean Elgoibarko ikasleak joango dira Alemaniara astebete pasatzera.

Kraussk taldearen kontzertua gaur, Kultur Etxeko sotoan

Sinuosek antolatuta, Mutrikuko Kraussk taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan. 2009an sortutako metal taldea da. 2010ean UEK eta The Wet Band taldeekin *Bidean Tour* izeneko bira egin zuten, eta horri esker, Euskal Herriko agertoki desberdinetan jotzeko aukera izan zuten. Bira honen ostean, bateria-jotzaileak taldea utzi zuen, eta etenaldi bat egin behar izan zuten. 2011ko abenduan kaleratu zuten estreinako maketa Jon Iturrinoren (Ehun kilo, Hira, Laumono) laguntzarekin, eta 2014ko ekainean estudioko lehen diskoa kaleratu zuten: *Gudaberría*. Erritmo pisutsu eta ahots urratuez gain, pasarte lasai eta melodikoak ere aurki daitezke diskoan.

23:00etan izango da kontzertua, eta sarrerak 3 euro balio ditu.

Unai Mir Ikastolako ikasleak aipamen berezia jaso du Gipuzkoako Bertsolari txapelketan

Pasa den martxoaren 18an Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketari dagokion kanporaketa jokatu zuten Elgoibar Ikastolan, eta Unai Mir LH4ko ikasleak aipamen berezia jaso du. Finala Arrasateko Amaia antzokian izango da domekan, 15:00etatik aurrera, eta han emango diote saria.



LANA

ESKAERA

- Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat haur eta nerabeekin. Behar bereziak dituzten umeekin lan egiteko espezializazioa daukat. **☎ 688 639 371**
- Grua operadore, igogailudun karretilarekin edo garbiketa industrialean lan egingo nuke. Esperientzia. Gidabaimena dut. **☎ 666 836 789**
- Emakumea lan bila. Erreferentzia onak eta paperak legez. Orduka edo interna. **☎ 631 681 516**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo externa eta baita gauak pasatzeko ere. Esperientzia. **☎ 631 506 763**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. **☎ 631 705 406**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna ere bai. **☎ 632 454 417**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. **☎ 631 714 520**
- Jaunartzeetako argazkiak ateratzeko prest. Merke. *jeffrycid91@gmail.com* **☎ 666 140 762**
- Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo tabernetan lan egiteko. **☎ 602 860 033**
- Gizona eskaintzen da peoi, artzai, lorezain edo arraindegian lan egiteko

Esperientziaduna. Zumaiaiko arraindegian arraina manipulatzan lan egindakoa.

- ☎ **631 066 712**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. **☎ 602 146 153 (Fatima)**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaindu edo garbiketarako egiteko. Orduka. **☎ 628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. **☎ 606 354 982**
- Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo harakin moduan lan egiteko. Esperientzia autoetako atek konpontzen. **☎ 661 064 027**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. **☎ 680 808 125**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. **☎ 638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. **☎ 686 265 293**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. **☎ 636 882 838**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Orduka, asteburuetan ere. **☎ 638 338 816**

ESKAITZA

- Asteburu eta jai egunetan Elgoibarren lan egiteko neska behar da. Premiazkoa. 25-35 urte artekoa, euskaraz ondo hitz egitea derrigorrezkoa. **elgoibarcv@hotmail.com**

ETXEBIZITZAK

- San Frantzisko kalean pisua alokagai. Egonzela-jangela sukalde amerikarrarekin, bi logela handi, komuna eta terraza handia. Dena kanpoaldera. 550€ komunitateko gastuak barne. **☎ 669 293 449**
- Babes ofizialeko etxea salgai Santa Ana kalean. Bi logela, garaje marduna eta trastelekua. Egoera onean. **☎ 686 204 618**
- Bikotea eta umea gara. Etxea behar dugu alokairuan. Arduratsua. **☎ 628 738 472**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Gehienez, 500 €. **☎ 606 354 982**
- Hiru logelako pisua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Grupo San Ignacio- Casa Verde) udarako edo 2015-2016 ikasturterako. **☎ 645 716 847 (Fos)**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **☎ 606 354 982**
- Duplexa salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Negoziagarria. **☎ 660 055 692**

KINTOAK

- 50 urtekoen kinto bazkaria maiatzaren 23an, Sigman. 11:45 plazan elkartuko dira. 12:00etan, meza, 12:15ean argazkia bolatokian, eta segidan luntxa, Zubi Ondo elkartearen. 14:30 bazkaria. 69 euro sartu behar dira Bankoan: 0138 0020 11 0010695759. **☎ 650 725 977 (Pili) () / 656 743 975 (Izaskun)**
- 1950ekoen kinto bazkaria maiatzaren 23an. 12:00etan meza Santa Klaran, gero

argazkia. 13:00 luntxa Gure Biden, 14:00etan autobusa Maalan. Bazkaria 14:30 Loliola hotelean. 80 euro sartu: 2095 5036 50 9114870189.

☎ 670 271 370 (Koldo) / 616 556 890 (Anton)

- 1943koen kinto bazkaria, maiatzaren 16an, Sigman. 50 euro sartu behar dira, Euskadiko Kutxan: 3035 0007 25 0071130756. Azken eguna: maiatzak 13. 13:00etan Tantakan luntxa. 13:45: argazkia. 14:00 meza Parrokian. 14:30, bazkaria.
- 1973ko kintoen bazkaria ekainaren 13an, Txarridunan. Luntxa, 13:00etan eta 19:00etan festa Gabaz tabernan. 40 euro sartu, Kutxa: 2095 5036 50 9114823858. Ekainaren 5erako.
- Elgoibarren 1960an jaiotako kinto bazkaria antolatuta dugu. Ekainaren 6an izango da Txarriduna jatetxean. Parte hartu nahi duenak 60 euro sartu behar ditu, Laboral Kutxako kontu honetan: ES96 3035 0007 200071130468. Azken eguna, maiatzak 5.
- 53ko kintoen bazkaria apirilaren 25ean. 12:30ean meza Maalan, 14:30ean bazkaria Txarridunan. 40 euro. Castrillejo estankotan eman izena hilaren 22rako.

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen da Jausoro plazan. **☎ 699 812 566**

BESTELAKOAK

- Katuak oparitzen ditut. **☎ 943 743 975 / 606 081 323**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxea saldu nahi dut eta erres-kontratu bat sinatu berri dut erosle batekin. Erosle horrek diru kopuru bat eman dit, seinale gisa. Notaritzan eskritura sinatzeko eguna ere jarri dugu, baina oraintxe deitu berri dit esanez ezin dugula eskriturarik egin banketxe bakar batek ere ez diolako hipoteka mailegurik eman gaur arte. Seinale gisa eman didan dirua itzultzera behartuta nago?

Erres-kontratuan idatziz jaso duzuenaren arabera da hori. Kontratuan esan bada salerosketa eskritura gauzatu ezean erosleak jarritako berme edo erres hori galduko duela eta ez bada beste bestelako zehaztazunik gehitu, legeak ez zaitu diru hori itzultzera behartzen, operazio hori ez delako zure erruz gelditu gauzatu gabe. Beraz, erosleak etxea erretserbatzeko emandako diru hori zeuretzat har zenezake.

AHOLKUA: Lege ikuspuntua alde batera lagata, aztertu beharko genuke baita ere operazio hori gauzatu ez izanak zenbaterainoko kaltea eragin dizun eta horren arabera ikusi giza legezkoa iruditzen zaizun diru hori itzultzea edo ez.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Haizart!** 10 urte! Ondo pasa zure eguna! Muxuak, gurasoen eta anaia-arreba Zugatz eta Laienen partez.



• Zorionak, **Sara**, zure hirugarren urtebetetzean, etxeko guztien eta bereziki Nora eta Mariaren partez.



• Zorionak, **Maddi**, asteazkenean 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez eta bereziki Jokinen partez.




• Zorionak, **txapeldun!** Muxu potolo bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Unai**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat, denon partez.




• Zorionak, **Ane**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez, muxuak, bereziki Iker eta Mirenen partez.



• Zorionak, **Ane**, eta muxu handi bat etxekoen partez, hilaren 28an 3 urte beteko dituzulako.



• Zorionak, **Maialen**, etxekoen eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Hodei**, atzo 3 urte egin zenituelako. Muxu bat, familiakoen eta bereziki Aritzen partez.



• Zorionak, **Jon eta Lucia**, familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Ane eta Alur**, 4 eta 7 urte beteko dituzuelako. Muxu potolo bat, familiakoen partez.



Udalekuetarako ideia asko atera dira batzarrean:
Izarraitzen konkista, kanpinean udalekuak, Senda Viva, Arcachon...
Igandean erabakiko dugu denon artean! 18:00etatik aurrera

Gipuzkoako
Partaidetzako
Aurrekontuak

} 2 MILIOI euro
DEBABARRENA hobetzeko

Egin zure proposamena www.aurrekontuahobetzen.eus
webgunean eta parte hartu zure herriko tailerrean:

• ELGOIBAR Apirilak 28, asteartea, 19:00etan, **KULTUR ETXEAN**

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!

 **Gipuzkoa**
BERRIA



24 barixakua

Hitzaldia

19:00 'Gipuzkoarrok garaile'

Jose Luis Ibartzabal
EHBilduko alkategaiak eta
Xabier Olano Gipuzkoako
Ahaldun Nagusirako
hautagaiak eskainiko dute.
Herriko Antzokian.

Bakarriketa

20:00 'Euskararen
espektakulue'

Kalamua Guraso Elkarrekin
antolatuta, musika eskolako
auditorioan.

Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Kraussek
taldearen kontzertua, Kultur
Etxeko sotoan.

25 zapatua

Azoka

9:00 Baserriko produktuen

salmenta

Kalebarren plazan.

11:00 Txosna

Lagun Taldeak jarriko du,
Kalebarren plazan.

12:00 Kale Kantariak

Kalebarren plazatik.

12:00 Pizza tailerra

Kalebarren plazan.

Eguerditik ganadu erakusketa

Aita Agirre plazan.

Gure esku dago

10:30-20:00 Joste Eguna

Goizez, Kalegoen plazan eta
arratsaldean, Maalako parkean.

12:00-21:00 Joste Eguna

Mendaron.

Informazio saioa

11:00 Heziketa zikloak eta

ingeniaritza duala

IMHn.

26 domeka

Kirola

10:30 Jose Gurrutxaga haur

krosa

Elgoibar Ikastolak antolatuta,

Kalegoen plazan.

Musika

12:30 Kontzertua

Udal musika bandaren
kontzertua, Herriko Antzokian.

Zuzendaria: Gorka Mujika.

1. *Children of Sanchez* (C.

Magione - N. Iwai).

2. *Euskal festara* (J.M.

Usandizaga).

3. *Orpheus in the underworld*

(J. Offenbach).

4. *Gernika* (Bonbardaketaren

78. urteurrena). (P. Sorozabala).

5. *Spirit* (H. Zimmer)

6. *Nostradamus* (O.

Schwartz).

27 astelehena

Kultura

17:30 Bisita kulturala

Haizeak antolatuta, Pello

Arrieta historilariarekin

Elgoibarko ondareari buruzko

saioa. Kalegoen plazan

elkartuko dira.

28 martitzena

Kultura

18:00 Literatura tailerra

Consuelo Carrererekin *El*

bosque de la noche liburua

landuko dute, Udal

liburutegian.

Bilera

19:00 Gipuzkoako

aurrekontua hobetzen

Foru Aldundiak deituta, Kultur

Etxean.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
24 Garitaonandia 25 Etxeberria 26 Etxeberria 27 Fernandez 28 Yudego 29 Oruesagasti 30 Barrenetxea 1 Barrenetxea	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)



«Pride»

24, barixakua: 21:30

25, zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)

26, domeka: 19:00

27, astelehena: 21:30



«Dixie eta matxinada zombia»

26, domeka: 16:30



ESKERTZA

ROSA Mª ARCARAZO ARRIETA

2015eko apirilaren 13ean hil zen, Gasteizen, 67 urte zituela.
Haren oroimenezko meza zapatuan, apirilak 25, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian izango da. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

MARIA BERISTAIN EGAÑA

2015eko apirilaren 15ean hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

AGUSTINA BASTARRIKA LARRAÑAGA

"Manuel Leizaberen alarguna"

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

2014ko apirilaren 18an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen du I. urteurreneko mezara agertu izana.



I. URTEURRENA

JUAN MARI OSORO AGUIRRE

"Katxo"

*Bazterrik bazter
irudiek, usainek, soinuek
guztiekin dakarte
zure izanaren aire goxoa.*

Maitasunez etxekoek.

2014ko apirilaren 22an hil zen, 66 urte zituela
I. urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 25ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleidak Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleidak Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almería, Uleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusion Graduatua. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK
GLOBAL CARD, DCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARRIFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IRAQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTASALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com